

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak. Funtsezko baliabideak, gure negozioa aurrera jarraitzeko behar ditugun beharrezko elementuak izango dira. Haien artean baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak izango dira.

Laburbilduz, enpresa batek bere balio-proposamena garatzeko, hori bezeroei helarazteko, bezeroekin harremanak mantentzeko eta, azkenik, diru-sarrerak sortzeko beharrezkoak diren baliabideak ezinbestekoak dira. Baliabide kategoriatan banatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide intelektualetan marka berri bat patentatuko dugu, beste enpresak produktua ez lapurtzeko eta, beraz, gure produktua bakarrak izatea, eta zerbitzu bakarra ematea. Gure bazkideetako batek diseinu grafikoan eta marketin digitalean duen eskarmentua baliatuko dugu marka indartzeko eta bezeroengana iristeko estrategia eraginkorrak sortzeko eta gainera beste bazkide batek produktuaren garapenean eta berrikuntzan duen ezagutza teknikoa erabiliko dugu gure produktuak bakarrak eta lehiakorrak izan daitezen.

Finantza-baliabideei dagokionez gure enpresa hasteko, mailegu bat eskatuko dugu. Gure produktuarekin hasteko, mailegua eskatu beharko dugu, ezin izango baita dena gure aurrezkiekin egin, eta, gainera, hasieran ez digute mailegua osorik eman nahi izango, enpresak porrot egiteko eta dirua galtzeko arriskuagatik. Beraz, guk % 50 jarriko dugu. Diru hori gure aurrezkietatik aterako da, gure proiektuan eta proiektu hori aurrera ateratzeko gaitasunetan konfiantza izango dugu.

Baliabide fisikoei produktua nondik nora garraiatzeko eta gestio guztiak egiteko bulego bat edukiko dugu Vitoria-Gasteizen, lakua zonaldean. Materialak, altzairuak, egurra, eta halakoak izango dira bulegoa egiteko eta behar ditugun herramientak izateko. Lokal txiki bat, komun batekin, bulego bat jartzeko tokiarekin eta biltegi bat paketeak gordetzeko kamarote bat bezala gure bulegoa alboan.

Giza baliabideei dagokionez gu izango gara lan hau gauzatuko dugunak. Lau laguneko taldea gara. Denok ikasi dugu haur-hezkuntza; horregatik, batez ere haurrentzat egindako produktua izango da, nahiz eta edozein adinetako edozein pertsonarentzat erabil daitekeen. Baina praktikoagoa da ikastetxeetan edukitzeko, nahiz eta jendeak banaka edo gimnasio batean erabiltzeko eros dezakeen. Gutako bakoitza gauza batean espezializatu gara, gure enpresa aurrera eramateko eta bezeroei ahalik eta zerbitzu profesionalena eman ahal izateko. Bik marketina ikasi du, sare sozialei buruz jakiteko eta horiei etekina ateratzeko. Izan ere, hain material garrantzitsua da gure produktua ikusteko, beste biek informatika ikasi du web-orria eraman eta sortzeko.

Produktua sortuta dago, baina DGSB enpresarekin kontaktatuko dugu produktu hori saltzeko gure hornitzailea baita. Produktua garraiatzeko beste enpresa baten laguntzarekin egingo dugu, ProfePack enpresa kontratatuko dugu.

